

UPV/EHUko IKERTALDEETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2024) I Modalitatea. Unibertsitateko Ikertalde Berriak

Emandako eta ukatutako laguntzen behin-betiko ebazpena

Ikerketaren Arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2024ko ekainaren 30ean, UPV/EHUko IKERTALDEETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2024).

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2025eko urtarrilaren 28an, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen alegazioak aurkezteko.

Alegazioak aztertu ondoren, IGBBek behin-betiko ebazpen-proposamena egin dio Ikerketa Errektoreordeari, Ikerketako Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezan.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

Bigarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

Hirugarrena.- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilita:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarri gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera gongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2025eko otsailaren 20an

Jon Umerez Urrezola
Ikerketa Errektoreordea
Vicerrector de Investigación

ESKAERAREN KODEA	SORTU BERRIA	PUNTUAZIOA	EMANDA/UKATUA	GUZTIRA EMANDAKOA
GIU24/015		88	EMANDA	7.670€
GIU24/007	BAI	86	EMANDA	26.900€
GIU24/016		81	EMANDA	30.132€
GIU24/019		74	EMANDA	19.536€
GIU24/028		71,5	EMANDA	9.695,40 €
GIU24/005		63,5	EMANDA	25.527€
GIU24/018	BAI	56,5	EMANDA	20.068,80 €
GIU24/021	BAI	56,5	EMANDA	17.119,50 €
GIU24/004	BAI	48	UKATUA	- €